

EDURNE ASTABURUAGAK NAIDER TALDEAREKIN BAT EGIN DU ANALISI SOZIOEKONOMIKOKO ETA HIRI PLANGINTZAKO PROIEKTUAK LANTZEKO

Posted on 26/04/2023 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tag: [Competitividad](#)

Edurne Astaburuaga (Gasteiz, 1998), Soziologian graduatua UPV/EHUUn eta Hiri eta Lurralde Plangintzako masterra Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, esperientzia du gizarte-ikertzaile gisa eta hiri- eta lurralde-plangintzako aholkulari gisa. Aniztasunarekin eta gizarteratzearekin, hirietan adinekoen autonomia sustatzearekin, energia-pobreziarekin eta gizarte-berrikuntzarekin lotutako proiektuak garatu ditu, batez ere administrazio publikoekin eta Europako funtsekin. Halaber, eztabaida-taldeak antolatu eta dinamizatu ditu proiektu horien esparruan.

Edurnek Naider taldearekin bat egin du hiri-soziologo gisa, azterketa sozioekonomikoko eta hiri-plangintzako proiektuak indartzeko.

Lanbideren Lehen Aukera programa izan dugu bere sarbide. Ongi etorri, Edurne!

